

LABen KONGRESUAREN INTERBENTZIOA (Iruñea 12-06-22)

Lehenik eta behin, ELAren izenean eskerrak eman nahi dizkizuet zuen Kongresuan parte hartzeko emandako aukeragatik. Zorte ona opa dizuegu, guztiok lana egiteaz gain, asmatu egin behar dugu gure hausnarketetan eta Kongresu bat horretarako da. Euskal Herriak eta Euskal Herriko langileriak behar du Euskal sindikalismoa geure herri eta klaseko interesak eta helburuak ondo bideratzeko. Benetan, Kongresua horretarako baliagarria izatea espero dugu.

Oso koiuntura gogorra daukagu. Nork esango zigun orain dela lau urte Ainhoari eta niri hau egokituko zitzaigula. Azken bolada honetan asko hitz egin dugu horretaz. Orain daukaguna eta datorrena gure belaunaldiak orain arte sekula ez du ikusi. Gure bizian inoiz pairatu gabeko atzerakada daukagu. Une oso gogorak, dudarik gabe. Eta, hori gutxi balitz ez daukagu horren eskarmenturik. Beste herrialdetan bai, Argentinan, Grezian... handik, herrialde horietatik, irakaspenak ekarri ditzakegu. Irakaspen oso baliagarriak: zer gertatzen da ajuste estrukturalak aplikatzen direnean; nola hazten den pobrezia, zer eta nola ekin behar dugun kontrabotereko eragileok... Horrek lagundu diezaguke euskal sindikalismoaren estrategia definitzerakoan. Ez gaude bakarrik munduan; inola ere ez.

KOIUNTURA OSO GORDINEAN GAUDELA esaten dugunean, zer esan nahi du? Fase kapitalista honetan gauzak okerrera eramán dituztela...

1.- ADOSTASUN SENDO BAT DAGO BOTERE EKONOMIKOAREN ETA POLITIKAREN ARTEAN erabat suntsitzeko esparru soziala eta laborala. Diru eta botere guztia banku eta patronalarentzat. Ondo dakigu lehentasun horrek zer dakarren: Murrizketen arrazoia diru publikoa bankuei ematea da. Ez da krediturik egongo, langabezia askoz gehiago igoko da, paradisu fiskalera dirutza eramaten ari dira, soldaten aurkako eraso bortitza, fiskalitatean ñabardura txikiak besterik ez dira agertzen... Esparru guztietan, kapitalak eskatzen duena politikak ontzat ematen du eta horrela... oreka guzti guztiak apurtzen dituzte. European existitzen zen sozialdemokraziarik ez dago, desagertu egin da, hauteskundetarako marka gisa izan ezik. Laburbilduz, unilateralismo neoliberal batean gaude kapitalak kontrolpean duelako ia politika guztia.

Instituzioetan -Euskal Administrazioetan barne- ezkerreko politika egiteko tarte oso estua dago (gero eta estuagoa Raxoiren lege basikoak kontuan hartuz). Gauzak horrela, gobernuek bakarrik utzi gaituztela esan ohi dugu. Guk egoera politikoa, zoritxarrez, horrela ikusten dugu. Ez zaigu batere gustatzen, eta ez dugu ontzat emango.

2.- BURUJABETZAREN IKUSPUNTUTIK, ARLO SOZIALA GAUR BEZAIN GARRANTZITSUA INOIZ EZ DA IZAN; inoiz ez, eta, hala eta guztiz ere, ez zaio ematen behar duen inportantzia alderdiek egiten duten politikan. Horrek, gure ustez klase sindikatu bat izanik, lotura handia du burujabetzarekin; soberaniaz dugun kontzeptuarekin. Hori guk ezin dugu baztertu, erlatibizatu. Esparru sozialak, gure jendearen esparruak, aukera paregabea eskaintzen dio burujabetzari Estatuaren aurrean planto egiteko. Sinesgarritasuna emango dio

alternatiba politiko bati. Ez dakigu zer gertatuko den; ez dakigu zer aukera edukiko dugun. Dakiguna da, gure jendeak gorriak ikusiko dituela, eta inoiz baino gehiago eredu sozial solidarioagoa, justuagoa, beharko duela. Hori da euskal esparruan dauden eragile politikoei gaurko, ez biharko, exijitzen dieguna. Horretarako guk geure indarrak erabili behar ditugu, geure lehentasunei uko egin gabe. Guk argi daukagu kontu bat: Gure gizartean alternatiba soziala eraikitzea oso zaila da, eta euskal sindikalismorik gabe, erabat ezinezkoa. Eta eduki sozialik gabe sinesgarritasuna falta zaio burujabetzari; gure jendeak ez du horretan sinistuko.

3.- POLITIKA BIDE GABE HORREK, ESPARRU SINDIKALEAN, ONDORIO LATZAK DITU:

- ERREFORMAK (Laboralak eta Negoziario Kolektiboarenak, esaterako) egin dituzte soldatak jaisteko eta sindikalismoa ahultzeko. Babes kolektiboa suntsitu nahi dute. Espainiako eskuma politikoa, neofalangista izateaz gain, botere ekonomikoaren defendatzaile sutsua da.
- PATRONALARI ondo ulertzen zaio. Amets guztiak bete ditu. Guzti guztiak. Gobernuek, Zapaterorenak eta Raxoyrenak dena eman diote eta oso pozik dago. Ez dago euskal patronalik, diruan soilik sinesten dute. Ikusi besterik ez dago Confebasken joan zen astean egin zuen proposamena: Estatu kolpe bat da esparru sozialaren aurka; fundamentalismo hutsa. Ondo irakurtzen du momentua: legea bere alde, elkarriketa soziala gizartea lokartzeko, langabezia oso altua tresna moduan erabiltzeko, eta orain, xantaiak. Hau da daukagun patronala, ez dago besterik.
- CCOO eta UGTren KOHERENTZIA. Estatu itunaren sinatzaileak dira, baita euskal esparru sozial eta laborala bertan behera uzteko ere. Hor dago beren apustua negoziario kolektiboaren zentralizazioaren alde. Oso modu koherentean jokatzeko dute, bai Madrilen, bai Gasteizen eta baita Iruñean ere. Nafarroan bertan, esaterako, erreforma egin eta gero Patronalarekin sinatu duten akordioa daukagu. Hor ikusten ditugu sindikalismo horren mugak, nabarmenak dira.

LABURBILDUZ, HAU DA GURE IKUSPUNTUA. Diagnostikoa partekatzea inportantea da abiapuntu moduan. Hori esanda, eta langileen interesen aldeko indarra eta eragina bildu nahian, euskal sindikalismoaren aliantza defenditzen dugu esparru sindikal, sozial eta politikoan lan egiteko. Lehen beharrezkoa zen, orain, ezinbestekoa. Desadostasunak gorabehera -desadostasunak egon badaude- horretaz hitz egin behar da. Ezinbestekoa da, hori nahi izanez gero, gure arteko lankidetzak. Etsaiak hor daude, oso indartsu. Aliatuak ondo aukeratu behar dira. Lortu nahi dugunerako edozerk ez du balio. Sindikalismoa tresna oso eraginkorra da. Ez dago besterik, baina asko da.

Gora Euskal Herriko langileria.
Gora Euskal Herria askatua.

Adolfo Muñoz Sanz "Txiki"
ELAko idazkari Nagusia.